

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2021eko abenduaren 25etik 31rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/12/25

- **Euskal administrazioak. – EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).**
– Arabako egur industrien sektoreko hitzarmen kolektiboaren 2022rako lan egutegia.
[4071 xedapena - 3 or.](#)

2021/12/27

- **Lan hitzarmen kolektiboak.** – Ebazpena, 2021eko abenduaren 15ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten aseguru, berraseguru eta mutualitateen sektorerako estatuko hitzarmen kolektibo orokorra.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/12/28

- **Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Administrazioa. - Lan eta Enplegu Saila.** - Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez xedatzen baita erregistratu eta gordailutu dadila Bizkaiko Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmen Kolektiboaren ondoriozko akordio bidez onartutako sexu-jazarpeneko eta sexuagatiko jazarpeneko egoerak prebenitzeko, jarduteko eta izapidetzeko protokoloa (hitzarmen-kodea: 48101815012018). [III-270 xedapena - 5 or.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/12/25

- **OSASUN MINISTERIOA. – Sendagaiak.** - SND/1450/2021 Agindua, abenduaren 17koa, honako honen akatsak zuzentzen dituen: SND/1308/2021 Agindua, azaroaren 26koa, zeinaren bidez eguneratzen den 2021ean Osasun Sistema Nazionaleko sendagaien erreferentzia-prezioen sistema. [21357 xedapena - 3 or.](#)

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. – Gizarte Segurantza. Ekitaldiaren itxiera.** - ISM/1451/2021 Agindua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen den Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten erakundeentzat 2021eko ekitaldia ixteko eragiketak arautzen dituen azaroaren 20ko ISM/1261/2021 Agindua. [21358 xedapena - 3 or.](#)

2021/12/27

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. – Prozedura administratiboak. Kudeaketa informatizatua.** – Ebazpena, 2021eko abenduaren 21ekoa, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren Presidentetzarena, zeinaren bidez aldatzen den 2008ko abenduaren 16koa. Horren bidez, baldintzak ezartzen dira prozedura elektronikoko bat garatzeko Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren eta kreditu-erakundearen artean fitxategiak truka daitezen, kontu korronteen laburpen normalizatuari buruz Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharren esparruan [21393 xedapena - 31 or.](#)

2021/12/29

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. -Dopina.** - 11/2021 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, kirolean dopinaren aurka egitekoa. [21650 xedapena - 58 or.](#)
- **Enplegu publikoa.** - 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriena. [21651 xedapena - 17 or.](#)
- **Pentsioak.** - 21/2021 Legea, abenduaren 28koa, pentsioen erosteko ahalmena bermatzeko eta pentsio sistema publikoaren finantza- eta gizarte-iraunkortasuna indartzeko beste neurri batzuei buruzkoa. [21652 xedapena - 30 or.](#)
- **Estatuko aurrekontu orokorrak.** - 22/2021 Legea, abenduaren 28koa, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzkoa. [21653 xedapena - 762 or.](#)
- **Kanarietako araubide ekonomiko eta fiskala.**- 31/2021 Errege Lege-dekretua, abenduaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen den Kanarietako araubide ekonomiko eta fiskala aldatzeari buruzko uztailaren 6ko 19/1994 Legea, eta beste epe bat ezartzen den tributazioko metodo eta araubide bereziei uko egiteko edo haiek ezeztatzeko. [21654 xedapena - 5 or.](#)

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. - Gizarte Segurantza. Antolamendua.** - 1152/2021 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, honako hauek aldatzen dituen: 1300/1995 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, zeinaren bidez garatzen den, Gizarte Segurantzaren sistemako laneko ezintasunen alorrean, Zerga, Administrazio eta Gizarte arloko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 42/1994 Legea; 2583/1996 Errege Dekretua, abenduaren 13koa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren egitura organikoari eta funtzioei buruzkoa eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena partzialki aldatzeko buruzkoa; 504/2011 Errege Dekretua, apirilaren 8koa, Itsasoko Gizarte Institutuaren egitura organikoari eta funtzioei buruzkoa; eta 497/2020 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Inklusioaren, Gizarte Segurantzaren eta Migrazioen Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena. [21657 xedapena - 7 or.](#)
- **Nortasun juridikorik gabeko funtsak. Kontabilitatea.** - Ebazpena, 2021eko abenduaren 22koa, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen den 2011ko uztailaren 1ekoa. Horren bidez, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 2. artikuluan 2. apartatuan aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko funtsei buruzko kontabilitate arauak eta funts horiek administrazioaren sektore publikoko ekarpen-entitateetan erregistratzeko arauak onesten dira. [21658 xedapena - 3 or.](#)
- **BARNE MINISTERIOA. - Mugak.** - INT/1472/2021 Agindua, abenduaren 28koa, zeinaren bidez luzatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua. Agindu horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren eta osasun publikoaren arloko arrazoiengatik. [21659 xedapena - 2 or.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Animalien sendagaiak.** - 1157/2021 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, industrialki fabrikatutako animalien sendagaiak arautzen dituen. [21662 xedapena - 36 or.](#)
- **TRANSIZIO EKOLOGIKOAREN ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN MINISTERIOA. - Planifikazio hidrologikoa.** - 1159/2021 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen den Planifikazio Hidrologikoaren Araudia onesten duen uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretua. [21664 xedapena - 37 or.](#)

- **OSASUN MINISTERIOA. - Mugak. Osasun kontrola.** – Ebazpena, 2021eko abenduaren 28koa, Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen den Espainiako sarbideetan egin beharreko osasun kontrolei buruzko 2021eko ekainaren 4koa. [21665 xedapena - 4 or.](#)

2021/12/30

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – ANIMALIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.** – akats-zuzenketa, honako lege honena: 17/2021 legea, abenduaren 15ekoa, kode zibila, hipoteken legea eta prozedura zibilari buruzko legea aldatzen dituen, animalien araubide juridikoari dagokionez. [21787 xedapena - 1 or.](#)
- **Premiazko neurriak.** - 32/2021 Errege Lege-dekretua, abenduaren 28koa, lan erreformarako, enpleguaren egonkortasunaren bermerako eta lan merkatuaren eraldaketarako presazko neurriena. [21788 xedapena - 54 or.](#)
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. – Kontratazioak jatorrian.** - ISM/1485/2021 Agindua, abenduaren 24koa, zeinaren bidez arautzen den jatorriko kontratazioen kudeaketa kolektiboa 2022rako. [21795 xedapena - 57 or.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA. – Osasun sendagaiak.** – Ebazpena, 2021eko abenduaren 14koa, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziarena, zeinaren bidez jarraibideak ematen diren albaitaritzako sendagai jakin batzuetan braille alfabetoa sartzeko. [21874 xedapena - 2 or.](#)

2021/12/31

- **GOBERNUKO PRESIDENTETZA. – SEGURTASUN NAZIONALA.** - 1150/2021 errege dekretua, abenduaren 28koa, 2021eko segurtasun estrategia nazionala onesten duena. [21884 xedapena - 36 or.](#)
- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. –Kontratazio administratiboa.** - HFP/1499/2021 Agindua, abenduaren 28koa, zeinaren bidez argitaratzen diren 2022ko urtarilaren 1etik aurrera sektore publikoaren kontrataziorako dauden kontratu moten mugak [21885 xedapena - 2 or.](#)
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. –Itsas arrantza.** - 1102/2021 Errege Dekretua, abenduaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen den Mediterraneoan aparailu finkoen eta aparailu txikien bidez aritzen den arrantza flota antolatzeke neurriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 395/2006 Errege Dekretua. [21886 xedapena - 4 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/12/28

- **XEDAPEN OROKORRAK. - EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA.** - EBAZPENA, 2021eko azaroaren 29koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena. Honen bidez, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek 2022. urtean ezar ditzaketen tarifak eguneratzen dira. [6406 xedapena - 5 or.](#)

2021/12/29

- **XEDAPEN OROKORRAK. - TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA.** - EBAZPENA, 2021eko abenduaren 14koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, auto-taxietako bidaiarien hiri barruko garraioaren zerbitzu publikoa emateko Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalek aurkeztutako 2022. urterako tarifak onartzeko. [6428 xedapena - 6 or.](#)
- **atzar Nagusietako lehendakariarena, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 7/2021 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 16koa, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzeke. [6304 xedapena - 1 or.](#)**
- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 5/2021 FORU ARAUA, abenduaren 3koa, Gipuzkoako A-15 eta N-1 errepideetan salgaien garraioan aritzen diren ibilgailu astunek errepidea erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanona ezartzen duena. [6305 xedapena - 10 or.](#)

2021/12/30

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LEHENDAKARITZA.** - 11/2021 LEGEA, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak. [6445 xedapena - 126 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/12/27

- **Batzar Nagusiak. - FORU ARAUAK.** - 29/2021 Foru Araua, abenduaren 13koa, Arabako Batzar Nagusien 2022. urterako aurrekontuari buruz. [4076 xedapena - 4 or.](#)
- 30/2021 Foru Araua, abenduaren 15koa, 8/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, azaroaren 16koa, baliozkotzeko dena, aldatzeko hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren araudia, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko epaira egokitzeko. [4114 xedapena - 1 or.](#)
- 31/2021 Foru Araua, abenduaren 15koa, landa eremuan populazioari eusten laguntzeko. [4115 xedapena - 9 or.](#)

2021/12/29

- **Batzar Nagusiak. - FORU ARAUAK.** - 33/2021 Foru Araua, abenduaren 21koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2022rako Aurrekontua Gauzatzeari buruzkoa. [4178 xedapena - 197 or.](#)
- 34/2021 Foru Araua, abenduaren 23koa, ekonomia suspertzeko neurriak, TicketBAI aplikatzeko neurriak eta zergen arloko neurri batzuk ezartzen dituenak. [4179 xedapena - 30 or.](#)
- 35/2021 Foru Araua, abenduaren 23koa, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruz. [4194 xedapena - 22 or.](#)
- **Arabako Foru Aldundia. - ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, abenduaren 28koa. Onestea alda daitezela Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemailea eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua. [4198 xedapena - 3 or.](#)
- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 56/2021 Foru Dekretua, abenduaren 28koa. Onestea alda daitezela pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinei egin beharreko atxikipenen ehunekoak. [4199 xedapena - 3 or.](#)

2021/12/31

- **LEHENDAKARITZA.** - 10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. [6466 xedapena - 99 or.](#)
- **SEGURTASUN SAILA.** - AGINDUA, 2021eko abenduaren 2koa, Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, Ertzaintzaren uniformetasun orokorrari eta bereizgarriei buruzkoa. [6467 xedapena - 23 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/12/27

- **Bizkaiko Batzar Nagusiak.** - 7/2021 FORU ARAUA, abenduaren 13koa, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2021eko uztailaren 29an hartu zuen lehenengo akordioa berresteko dena. [I-1064 xedapena - 10 or.](#)
- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2207/2021 FORU AGINDUA, abenduaren 21koa; honen bidez, garatu egiten da 11/2020 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 1koa, COVID-19arekin lotutako luzapen-neurriei eta beste premiazko neurri batzuei buruzkoa. [I-1081 xedapena - 2 or.](#)

2021/12/28

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2193/2021 FORU AGINDUA, abenduaren 20koa, zeinaren bidez foru-agindu hauek aldatzen baitira: Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 48/2018 Foru Agindua, urtarrilaren 9koa, (haren bidez, inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzeko duten akzioen eta partaidetzen eskuraketei eta besterentzeei buruzko urteko aitortpen informatiborako 187 eredua onesten da); 515/2009 Foru Agindua, otsailaren 17koa (haren bidez, balore, aseguru eta errentei buruzko urteko aitortpen informatiboa egiteko 189 eredua onesten da); Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2282/2016 Foru Agindua, abenduaren 23koa (haren bidez, finantza-aktiboekin eta beste balore higigarri batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena egiteko 198 eredua onesten da); Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2156/2016 Foru Agindua, abenduaren 7koa (zeinaren bidez onartzen baita 296 aitortpen-eredua Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrak. Atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena); eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 185/2015 Foru Agindua, urtarrilaren 21koa (haren bidez, hirugarren batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena egiteko 347 eredua onesten da). [I-1067 xedapena - 11 or.](#)
- Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 2197/2021 FORU AGINDUA, abenduaren 20koa, martxoaren 31ko 632/2017 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez, 289 eredua onesten da, elkarri eman beharreko laguntzaren esparruan finantza-kontuei buruz urtero egin beharreko aitortpen informatiboa egiteko dena. [I-1069 xedapena - 6 or.](#)
- 2198/2021 FORU AGINDUA, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuarena, abenduaren 20koa, hiriko ondasun higiezinaren merkatu-balio probablea eguneratzeko oinarri den merkatu-azterketa onartzen duena. [I-1070 xedapena - 1 or.](#)

2021/12/29

- **Bizkaiko Batzar Nagusiak.** - 2021eko abenduaren 13ko Osoko Batzarrean hartutako erabagia, Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Araua egokitzen duen 7/2021 Foru Dekretu Arauemaileari buruzkoa. [I-1077 xedapena - 1 or.](#)

2021/12/30

- **Gizarte Ekintza Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 173/2021 FORU DEKRETUA, abenduaren 21ekoa, zeinaren bidez etxean bizitzen jarraitzeko EtxeTIC laguntza-zerbitzua arautzen baita. [I-1095 xedapena - 5 or.](#)
- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 2231/2021 FORU AGINDUA, abenduaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen baita BATUZ proiektuaren betebeharretatik salbuesteko baimena emateko prozedura arautzen duen abenduaren 14ko 2163/2020 Foru Agindua. [I-1110 xedapena - 2 or.](#)

2021/12/31

- **Bizkaiko Batzar Nagusiak.** - 8/2021 FORU ARAUA, abenduaren 30ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2022ko aurrekontu orokorreari buruzkoa. [I-1102 xedapena - 74 or.](#)
- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 176/2021 FORU DEKRETUA, abenduaren 28koa, 2022ko lanaren etekinei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketarako aplikatuko zaizkien atxikipen-ehunekoak aldatzen dituen. [I-1071 xedapena - 3 or](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/12/27

- **DIPUTATU NAGUSIA.** - 6/2021 Foru Araua, abenduaren 22koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2022. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen. [8273 xedapena - 45 or.](#)
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 685/2021 Foru Agindua, abenduaren 17koa, zeinaren bidez aldatzen baitira abenduaren 29ko 556/2017 Foru

Agindua, martxoaren 5eko 91/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 21eko 27/2018 Foru Agindua, eta abenduaren 29ko 530/2020 Foru Agindua, hurrenez hurren 187, 189, 198 eta 289 ereduak onesten dituztenak. [8156 xedapena - 15 or.](#)

- 694/2021 Foru Agindua, abenduaren 20koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren eremuan faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren eta fakturen kontabilitate-erregistroaren zenbait alderdi arautzen dituen abenduaren 1eko 632/2014 Foru Agindua aldatzen duena. [8164 xedapena - 3 or.](#)
- Akatsen zuzenketa: 688/2021 Foru Agindua, abenduaren 20koa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenta jakin batzuen atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aitortzeko 296 eredu eta haren aurkezpen moduak eta epeak onartzen dituena. [8251 xedapena - 1 or.](#)

2021/12/29

- **GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA.** - 13/2021 Foru Dekretua, abenduaren 15koa, zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoak onesten dituena eta aldatzen duena ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzekoa. [8067 xedapena - 2 or.](#)

2021/12/30

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 15/2021 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen baitira TicketBAI betebeharraren Erregelamendua onesten duen foru dekretua, zerga betebeharraren formalen Erregelamendua, eta PFEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua, eta bi zerga horietan 2022an aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak onesten baitira. [8391 xedapena - 7 or.](#)

2021/12/31

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 16/2021 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako zerga betebeharraren formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duena. [8392 xedapena - 3 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/12/28

- Batzordearen 2021/2313 (EB) Erabakia, 2021eko abenduaren 22koa, inportazio eskubideen frankizia bat eta BEZaren salbuespen bat emateari buruzkoa, 2022. urtean COVID-19aren agerraldiaren ondorioei aurre egiteko behar diren salgaien inportazioari dagokionez. [C(2021) 9852 zenbakiarekin jakinarazia] (Alemanieraz, bulgarieraz, danieraz, errumanieraz, eslovenieraz, espainieraz, estonieraz, finlandieraz, frantsesez, grekoz, hungarieraz, ingelesez, italieraz, kroazieraz, letonieraz, malteraz, nederlanderaz, polonieraz, portugesez, suedieraz eta txekieraz argitaratutako testuak dira benetako bakarrak). [L 464/11 xedapena - 3 or.](#)

2021/12/29

- Alde batetik, Europar Batasunaren eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoaren eta, bestetik, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuen arteko

Merkataritza eta Lankidetzak Akordioak ezarritako Elkarte Kontseiluaren 2/2021 Erabakia, 2021eko abenduaren 21ekoa, Erresuma Batuk Erresuma Batutik irten ondoren bidaiarien izenen erregistroko datuak ezabatzeko betebeharraren salbuespenak ezar ditzakeen behin-behineko aldiaren luzapenari dagokiona [2021/2323] [L 467/6 xedapena - 2 or.](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO